

Europako hiriak Erdi Aroan

Hirien hazkundera

- XII. mendetik aurrera, inbasioen amaierak, nekazaritzaren hobekuntzak eta biztanleriaren hazkundera merkataritzako trukeak sustatu zituzten eta hirietako bizitzaren hazkundera bultzatu zuten.
- Hauek izan ziren nekazaritzako aurrerapen nagusiak: hiru urteko txandakatzea, ongarri gisa simaurra erabiltzea, nekazaritzako lanabes berriak (belarridun goldea, adibidez) eta lepokoa erabiltzen hasia eta haize-errotak.
- Elikadura hobeak biztanleria handitzea eragin zuen: XII. mendean 45 milioi biztanle izatetik XIV. mendean 75 milioi inguru izatera igaro zen Europa.

Erdi Aroko hiria

- Erdi Aroko hiriak harresiz inguratuta zeuden. Barnealdean, kaleak estuak ziren, eta etxeak pilatuta zeuden. Plaza hiri erdian kokatu ohi zen, eta han egon ohi ziren eraikin nagusiak: katedrala, udaletxea eta jauregiak.
- Gizarte-talde berri bat sortu zen hirian, burgesia, eta lana zen talde horren aberastasunen iturria. Artisauak, merkatariek eta bankariek osatzen zuten burgesia. Hirian bizi ziren, halaber, nobleak eta jende xehea, hala nola mirabeak eta eskaleak, bai eta gutxiengo batzuk ere, juduak, adibidez.
- Magistratuak aukeratu zituzten hiriak gobernatzeko, eta alkatea zen haien buru. Baina gobernuak aberatsenen esku gelditu zen, hirietako oligarken esku, hain zuzen.

Artisautza eta merkataritza

- Hiriaren funtzio nagusietako bat azoka-lanak egitea zen: nekazaritzako produktuak saltzen ziren, eta artisauak egindako eskulanak erosten.
- Artisauak gremiotan biltzen ziren, lehiakideetatik babesteko. Gremioak kontrolatzen zuen nork egin zezakeen lan, zenbat ordu eta zer lanabesekin, bai eta artikuluen kalitatea eta prezioa ere.
- Tokiko merkatuez gain, merkataritzako azokak ere egiten ziren. Merkatuek eta azokek errege-erreginen edo jaunen babesaren izaten zuten, hala, hirien hazkundera bultzatzeko. Urrutiko herrialdeetara joateko merkataritza-bide handiak ere baziren, Ekialdera joateko bereziki.

Europa Behe Erdi Aroan

- XIII. mendearen amaieratik aurrera, Europako monarkiak boterea sendotzen hasi ziren, burgesiaren laguntzarekin; erregeek pribilegioak eta erresuman zirkulatzeko bermeak eman zizkieten, eta, horien truke, burgesek dirua eman zieten erregeei, nobleen aurka borrokatzeko.
- Burgesiako ordezkariak erregearekin egiten ziren bileretan, hots, gorte edo parlamentuetan, parte hartzen hasi ziren.
- XIV. mendearen erdialdetik XV. mendera arte, Europak krisi larria pairatu zuen. Nekazaritzako krisiari Ehun Urteetako Gerra eta Izurrite Beltza gehitu zitzaizkion; azken horren ondorioz, Europako biztanleriaren heren bat baino gehiago hil zen.